

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

«Maixabel» eta «Naparra», sendabideak eta zauriak

Duela astebete bukatutako Zinemaldia-
ren testuinguruan ahots batzuk ageri
dira han-hemenka, Juan Maria Jauregi
Gipuzkoako gobernadore zibil ohiaren
hilketa oinarri duen filmaren oihartzu-
na nabarmenduz eta Jose Miguel Etxeberriaren desa-
gertzeari buruzkoaren trataera eskasagoarekin alde-
ratuz. Zinemagintzaren ikuspuntutik ez omen da
bidezkoa konparatzea, bata zein bestea sail ezberdi-
netan eman direlako eta aurrekontu aldetik ere alde-
raezinak direlako. Tira, gutxienezkoa da hori, jakina.
Trataera konparatu nahi izatekotan, ikuspegi politi-
kotik egitea legokiguke hemen. Eta horretara ere ez
nator ni, biak aurrez aurre jartzea baino, lerro berean
kokatzea emankorragoa dela uste dudalako. Ez al da
posible, bi istorioen artean indarkeria politikoa eta
samina osagai komunak
direla eta konponbide poli-
tikoa eta elkarbizitza ortzi
mugan direla ulertuta?

Ekin diezaiozun ariketa-
ri. Zauriak ixteko balio du-
ten elkarrizketak dira “Mai-
xabel”-en ardatz eta, era
berean, ekarpen. Zineman
leitmotiv eraginkorra da
hori, dudarik gabe, baina
pantailatik kanpoko errea-

litatea ez da hain goxoa momentuz. Estreinaldiaren
aurretik Lasarekin biltzeko prest den euskal preso ba-
ten izena (ETAren atentatu horren egileetako bat) ar-
gitaratu du Gipuzkoako egunkari salduenak, pribatua
publiko eginez, sendabidea dena erasorako
tresna bihurtuz. Zinemaldia pasatuta ere, orrialde
berberetan Iruñeko kartzelan eginiko proiektzioa era-
bili dute bertako euskal preso politikoen aurka, Mai-
xabel Lasa eta Iciar Bollain zuzendaria entzutera ez
omen direlako atera.

Bitartean, ez da kasualitatea Jose Miguel Etxeberria
Alvarezaren kasuaren inguruko filmak “Naparra” izen-
burua ez izatea, “Bolante baten istorioa” baizik. Ger-
tatutakoa ezin baita gidoi bilakatu, fikziozkoa ez ba-

da. Benetako istorioa ez dago kontatzerik, historiaren
alboko kate den familiaren bilaketa etengabearena
baizik. Lau hamarkada pasatuta, egin ziotenak –eta
egin ziotenek– ezkutuan segitzen dute. Hor ez da sen-
dabide posiblerik, zauria zabaldu eta zabaldu baino
ez da egin. Berrosatzeko topaketa baino xumeagoa
da Eneko anaiak eta gainerako senideek behar dute-
na: norbaitek inoiz-inon-inola-zerbait azaltzea, ano-
nimatetik bada ere. Baina bistan da horren denbora
luzean behin bakarrik gertatu dela horrelakorik (Lan-
detan oraindik guztiz ikertu gabe dagoen lekukotasu-
na), eta estatu indarkeriaren ia kasu guztietan gauza
bera gertatzen dela. Maixabelen saminean, bada nork
eta nola gainditzen lagundu; Enkorenean, ez. Hau ez
da konparaketa, ez du izan nahi, beharrezko gogora-
razpena baizik. Harrigarria baita prozedura horren

Harrigarria da berrosatzeko topaketa
horien apologistek ahaztea halako
aukerarik ez dela milaka lagunentzat,
beren saminaren egilea ezezaguna baita

apologistek ehunka lagunentzat –milaka, torturatuak
sartuz gero– aukera hori ez dela existitzen ahaztea,
beren saminaren egilea ezagutzen ez duten neurrian.

Gatazkak utzitako zaurietan sendabideak jartzeak
guztion zeregina izan beharko luke, lorpen kolektibo
bat. Horretarako, zauriak identifikatu behar dira le-
henik eta, horretarako, aurretik eragindako mina ai-
tortu eta, horretarako, nor bere arduraren jabe egin.
Kate honi begiratuta bistan da ETAren indarkeriaren
erreparazioa eta Estatuarena ez daudela gaur egun
puntu berdinean, ezta gutxiagorik ere. Egiaztapen
hau ez litzateke aurrerapausoak ematen ez segitzeko
aitzakia bilakatu beharko. Bai, ordea, ahalegin horiek
balioan jarri eta saritzeko motiboa izan. •